

Haize Berriak convoca un concurso internacional de composición para banda

- Se trata de una iniciativa pionera en Navarra de gran formato musical, con un premio de 8.000 euros a la obra ganadora

DIARIO DE NAVARRA. NATXO GUTIÉRREZ . PAMPLONA Jueves, 4 de diciembre de 2008 - 04:00 h.

La formación Haize Berriak, de la Barranca y Burunda, promueve el I Concurso Internacional de Composición para Banda como "un estímulo a la creatividad" y fomento de "del patrimonio musical y cultural de las bandas u orquestas de viento y percusión". La convocatoria es exclusiva en Navarra, "en cuanto a formato de obra sinfónica con una duración de 10 a 15 minutos", como explicó el director de Haize berriak, Luis Orduña Ridruejo.

Se sitúa "a la cabeza" en el país en cuanto dotación económica. Reserva, en este sentido, un premio de 8.000 euros, como aliciente para concitar la atención de posibles compositores de todo el mundo interesados.

Propuesto con la idea de reeditar nuevas convocatorias, "con carácter bienal, trienal o cuatrienal", su condición pionera en la Comunidad foral se debe a la duración de la obra. "Los concursos de composición que existen son de obras menores", precisa Luis Orduña. En su iniciativa, avalada por el Ayuntamiento de Alsasua y la Fundación Can, a través del programa de Tú eliges, tú decides, la formación de la Barranca y Burunda se apoyará en los adelantos técnicos de difusión mundial que procura internet. Los interesados de cualquier parte del mundo encontrarán en el portal <http://www.haizeberriak.com> las bases del concurso. El plazo de presentación de sus propuestas expirará el 31 de julio en el Centro de Cultura Iortia del Ayuntamiento de Alsasua.

Las composiciones serán sometidas a la valoración de un jurado, que incluirá a "tres miembros de reconocido prestigio internacional en el campo de la composición", cuya identidad no se revelará hasta el anuncio del fallo, antes del 15 de septiembre.

Estreno en Navidad de 2009

La idea barajada por la banda es presentar la obra ganadora en el concierto de Navidad de 2009 en el Centro Cultural Iortia, de Alsasua, dentro de un programa, titulado *Original lo mires por donde lo mires*, que incluirá una segunda composición, encargada, en este caso, a la catalana Montserrat Torras dentro del proyecto *Las mujeres en la música*; y una adaptación de música popular de Juantxo Arreiza. Los 42 intérpretes que integran la banda de la Barranca y Burunda estarán coordinados ese día por su habitual director y por Vicente Egea y Carlos Etxeberria. Además, se editará un CD con la obra ganadora.



De izquierda a derecha, Unai Hualde Iglesias (alcalde de Alsasua), Juan López de Sabando Lasa (portavoz de la Asociación Música "Haize Berriak"), Luis Orduña Ridruejo (director de la banda "Haize Berriak"), Jasone Etxebeste Razkin (Cordinadora del Concurso) y Javier Erquiaga Martínez (Fundación Caja Navarra). N.G.

Musika Bandarako Nazioarteko I. Konposizio Lehiaketa deitu du Haize Berriak-ek

Sortzetik estatuko lehiaketa garrantzitsuenetako bat bihurtu da Sakanako Musika elkartearen deialdi



GUAIXE!

Sakanako Musika ElkarTEak gaur goizean aurkeztu du deitu duen Haize Berriak, Musika Bandarako Nazioarteko I. Konposizio Lehiaketa. Sortzaile sarituak, 8.000 euro eskuratzeaz gain, bere partitura, musika bihurtuta, heldu den urteko Altsasuko eguberrietako kontzertuan entzuteko aukera izanen du. Diskoan ere jaso geldituko da. Gainera, saritutako partitura banden artean dohainik banatuko du Haize Berriak Sakanako Musika ElkarTEak.

Aurkezpena

Gaurko aurkezpenean Haize Berriak bandako kideez gain egitasmoa aurrera ateratzen lagundu duten erakundeetako ordezkariak izanen dira: Altsasuko alkate Unai Hualde Iglesias; Nafarroako Kutxa Fundazioko Javier Erkiaga; musika bandako zuzendari Luis Orduña Ridruejo; lehiaketako koordinatzaile Jasone Etxebeste eta Haize Berriak Musika Elkarteko bozeramaile Juan Lopez de Sabando.

Haize Berriak, Sakanako Musika Elkartetik azaldu digutenez, bi urte daramatzate *“orain arteko egitasmo handiena”* lantzen. *“Orain arte jarritako helburuak bete egin dira, ez denak era berean, baina bai egoki eta gure buruari eskaera maila handituz, lan zama eta antolaketa ahalegin handiagoa eskatuz”*.

Sakanako Musika ElkarTEak bere buruari jarritako helburuen artean dago bandarako musika sormena sustatzea. Elkartetik azaldu digutenez, *“bandarako musika sormenak bere historiako unerik onenean dago. Nazioarteko lehiaketa egitasmo honekin sormen arlo horretan gure ekarpena egin nahi dugu”*.

Idea luzez ontzen egon dira elkartean eta *“hasieran aurreikusitakoa baino anbizio handiagoa”* behar zela konturatu dira. Izan ere, Altsasuko Udalarari hasiera batean aurkeztutako aurrekontua, 6.000 euro, nabarmen hazi da eta horrek diru-iturri pribatuetara finantziazioa bila joatea eskatu die.

Helburuak

Haize Berriak musika elkarte sakandarrak lehiaketa horren antolaketarekin bi helburu bete nahi ditu. Alde batetik, banden musika eta kultura ondarea sustatu eta aberastea. Horrekin batera, musikaren arlo horretako konposatzaileen sormenerako akuilu izatea, bide batez, musika bandendako errepertorio idatzia zabalduz. Zeharka, jakina, Haize Berriak musika banda ezagutzera emanen da, baita Sakana bera ere. Deialdia baliatuz elkarTEak bere web orria berritu du.

Konposizioa sustatuz

Ez da aurreneko aldia Haize Berriak, Sakanako Musika ElkarTEak konposizio lana sustatzen duena. Bandako kide zen Esther Irisarri Garasaren omenez Joseph Vicent Egea musikagileak *Variaciones Agur Jaunak, Esther Irisarri in memoriam* lana sortu zuen. Ondoren etorri dira Jorge Senosiainek Altsasuko peñen musikarekin egindako moldaketak, Olatzagutiako Udalaren enkarguz eta Jose Luis Ollo omentzeko maiatzean mustu zen *Olatzagutiako xuxurlak*.

Nazioarteko lehiaketak ekarriko duenez gain, Haize Berriak-ek sormen lan gehiago ditu mustutzeko. Esaterako, Juantxo Arraiza konposatzaileak eginen duen Altsasuko zortzikoaren moldaketa, edota Emakume Langilearen Egunaren inguruan mustuko dutena, emakume batek konposatua izanen dena.

Haize Berriak, Sakanako Musika Elkartetik aurreratu digutenez, Musika Bandarako Nazioarteko

Konposizio Lehiaketak jarraipena izateko ideiarekin sortu da. Musika elkarteko kideek aitortu dutenez halako lehiaketa baten antolaketak “*zailtasunak*” dauzka, horregatik deialdia, bi, hiru edota lau urterokoa izanen da. Oraindik ere maiztasuna zehazteko dute, baina “*giltza lehen edizio on bat egitean dagoela*” uste dute elkartekoek.

Oinarriak

Haize Berriak Sakanako Musika Elkarteak deitutako lehiaketara aurkeztu nahi duten konposatzaileek heldu den urteko garilaren 31ra arteko epea dute lanak aurkezteko. Lanen estetika eta teknika libreak izanen dira, bakarlari gabekoak, erdi-mailako zailtasuna izan beharko dute, 10 minutuko iraupena gutxienez eta 15 minutukoa gehienez. 2009ko irailren 15a baino lehen emanen du erabakiaren berri epaimahaiak. Musika konposizio arloan nazioartean ospea duten per-tsonak osatuko dute epaimahaia.



www.haizeberriak.com